



ZEIN OTE DA?

Materiala:

Fitxak, arbeltxoak eta klarionak edo horien ordezkariak eta arkatzak.

Jokatzeko era:

Gidariak talde guztiei fitxa bana emango die, denei berdina, edo fitxa handi bat guztien begi-bistan orman edo arbelean jarriko du. Fitxa horretan guk aukeratutako esamoldea agertzen da eta lau azalpen. Hauetako bat bakarrik da zuzena. Jokalariak zein den asmatzen ahalegindu behar dute. Erantzuna arbelean idazteko minutu bat izango dute. Horrela fitxak agortu arte. Gehien asmatzen dituen taldea da garaile.

2. Urak dakarrena urak daroa.

- Gauzak okertuz joan.
- Urak egingo du bide.
- Uholdeak izan.
- Gauzak etortzen diren moduan joaten dira.

ESAMOLDEAK AUKERAN

